


7AR

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
41n. ZENBAKIA
EPAILLA
— 1981 —



**BIZKAIA'N EUSKALERRIA'N
BALMASEDA**

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia

OIUAK ETA ODOLA

Berba bi orreitan agertzen da bizi-bizi aspaldiko giroa: Oiuak Gernika'n eta odola Jose Mari Ryan'en eriotzan. Giro ori ez da ezelan be atsegingarria eskaldunontzat. Beste era bateko Euskalerrria gura genduke, baiña orixe da begien aurean daukaguna. Eta ez daukagu besterik.

* * *

Erregeak Gernika'ra egin dauan ikustaldiari erantzuteko izan ziran batzar-Etxeko aoiuak.

Ikustaldi ori eztabaidagarria zan. Batzun ustez onuragarria, erri-agintaritzaren bideak zabaltzeko erregeak egin dauan lana kontuan dala; beste batzuntzat, ostera, kaltegarria, euskaldunen abertzaletasuna moteltzeko eta egin bear diran eskuratzeko egiteko oztopo ta sendotasunaren bigungarria dalako.

Erregeak Gernika'ra etorteak edo Lege Zarrak ziñatzera etorteak gure kondairaren zati aundi bat beteten dau, baiña batzun ustez kondaira-zati orretara eldu baiño lenago izan genduan askatasun eta buru-jabetzaren giroa bear dogu. Eta, gaiñera, oraingo ikustaldi au ez da izan Lege Zarrak ziñatzeko.

Baiña orreik ete ziran oiularien pentsabideak? Ala beste politika-joko bat ete egoan or barruan, gure erriagaz ainbeste zer-ikusi ez daukan jokabideren bat?

Erregeak emon eban erantzuna, egokia izan zala dirudi. Berbaz eta alkar-izketaz oraindiño ainbat gauza zuzendu leikez.

Eta zer esan Orixe'ren bertso gogoangarri areak erregearen agotik entzuteari buruz? Gogo on bat agertzen dala or esan geinke eta, zalantza barik, gure belarrietarako mingor izango zan itzaldi luze bat euskeraz egitea baiño egokia izan da asmapen ori.

* * *

Erriketa-arazo orreik gozo-gozoak ez ba'dira, gogorkeriaren eta bildurkeriaren ondorenak mingotsagoak dira.

Lemoniz geratu ala ez, jakin bear diran neurrian gauzak jakin ondoren, erriak esan bear dauan gauzea da. Baiña alde ta aurka diran arrazoiak berotasun biziagi barik azaldu ondoren. Gai eztabaidagarria ori be.

Baiña alde bateko eritxia sendotzeko eta betetea lortzeko, gizona iltea ezin izan leiteke sekula be bide egokia. Gizonaren bizia zor jakon itzaltasunaz eta maitasunaz zaintzeko ta babesteko ez dira alegin txikiak egiten aspaldion gure mundu larri ta artega onetan. Epaikariaren epaiak ori eskatzen dauanean be, ez dogu ontzat artzen gizona iltea, toki askotan beintzat. Eta jokabide zuzen eta egoki orren aurka doa olako ilketa.

Erriak orrelan ikusi dau eta orregaitik izan dira illeta-eguneko alkartze aundiak, lantegietako oporra, kalerik kale egin diran agerpenak... naizta, bear ba'da, politika-gizon batzuk giro ori euren errotara ura eroateko bide lez artu.

* * *

Euskaldunen bakea ez da erreza: Kanpotik gogorkeria eta barrutik oiua eta odola. Itxaropena galdu barrik aurrera ta aurrera egin bearko dogu gure erritarren artean erri-miña sortuz.

Gaurko bizitza latz eta mingarria, epe luze baterako bake-bide ba'da, ondo etorria izan daitela. Eroapena ta ekiña alkartuta lortuko dogu gure ondorengoentzat giro egokiagoa, bakea. Ekaitz-ostean, bare-aldia etorriko da.

Larri-aldi onek ez ditu guztiak bardin arrapatzen. Alargunak eta aita barik geratzen diran sendiak dira nekeetan aurrerengo. Gizarteko maitetasun beroaz lagundu bearko doguz olakoak eta euren errotara ura eroateko bide lez artu.

BURUJABETASUNA

ERRIA SORTZEN

Kondaira-aurretikoak gara euskaldunak. Ezarri dauskuen uts edo erruetatik bat, eta txito nabarmena bera au da, aldi batean ez genduala idazlerik izan Txina'tarrak, gerketarrik ta erromatarrik, besteak beste, izan zituen lez. Oraintsura arte, XVI mendera arte, iragarki banaka batzuk izan ezik, aoz ao soillik gure aparteko oitura ta lege zarrak asabengandik artzen genduzan.

Euskaldunak Auñamendi'ko magal bietan belaunik belaun burujabe ziran, arkeologoak eta ainbeste ikurrek adierazten dauskun lez. Begiratu Barandiaran'en lan bereziak eta abar...

Askeak ziran euskaldunak eta Europa oraindiño sortu barik egoan. Aintziñate illunetik gatoz, elendarrak «demokrasi» izena aurkitu baiño lenagotik, Erroma'tarrak orduko ludi-zati ezagunaren jabe bakarrak izan baiño lenagotik. Geiago, Moises be jaioteko egoan eta olan Sinai Menditik Itun Zarreko legediaren ol zarrak eta gurgarriak oraindiño jaisi ba-koak ziran.

Orduko euskaldunak Santimamiñe'ren erraietan zirala eta bere orma ezoetan abere-marrazkiak egin ebezela gizaldiak ziran.

Eurak orduko erri bat ziran eta lenengoko aritza landatua eukun. Andik mendeen joan-etorriaz, sortuko zan Gernika'ko aritza be.

* * *

ERASOALDIAK

Gero euskal lurra, bai goitik eta bai betik, gudaroste zitalez zearka-

tua izan zan. Or Karlomagno, Erroma'tarrak, Kartago'tarrak, Godoak, Arabia'tarrak eta abar...

Baiña euskaldunak beti tinko erro-tuta, euren burujabetasunaren ikurra zan zugatz maitagarriaren ondoan. Bere kantari bikaiñak izan doguz azken-aldietan Iparragirre giputza ta Arrese Beitia Otxandio'ko seme jaterra.

Erasoaldi guztiak artu ebezan, baiña eskubide ta lur-zati kutunak; tamalez, bein eta geiagotan galdu arren, inondiko burrukak egin ondoren.

Erri baketsua izan gara. Ez dogu iñoz be gura izan iñorren lurrak artzerik. Malato zugatza dogu ezaugarri. An geratu oi ziran euskal guda-riak etsai kanpotarrak euren lurraldeetara bota ondoren.

Gu, baiña, Bizkaia'tarrak batik bat, gure arbola santuaren inguruetan baturik, antxiñako Lege Zarrak zaintzeko eta eurakaitik odola emoteko gertu.

* * *

OITURAK

Aldien joan-etorriak Europa, Europa lez agertu zan, bizibide ta gizabide-buruzko berezitasun ezbar-diñakaz.

Europa barri onetan giza-maila guztietakoak, erriketa-gauzetan, aberastasunen banaketan, gudetako nagusitasun-mailletan eta olako goraberetan sartu ziran.

Euskaldunak beti bardiñak legeaurrean, guztiak Aitor'en seme, guztiak leiñargi.

Ez eban gure artean oiñazetik artu bearrik izan. Ikusi euskaldunen lenengo lan-oporraren zergaitia.

Edestitik dakigunez, II Felipe España'ko erregeak euskal-argiñai Eskorial'en ezarritako oiñazeagaitik izan zan.

Beste errege España'tar batzuk be gure legeen aurka erabagiten ba'eben gure asaba zarren erantzuna au izaten zan: «Esanekoak gara, baiña ez dogu beteten».

Gure burujabeak giñan eta Europa'n oraindiño giza-eskubideak agertzeke egozan; beintzat bilduma lez laterririk geienetan agertzeke.

* * *

GERNIKA

Hitler'en guda-egazkiñak eta Franco'ren guda-taldeak, Italiarrak eta mauruak lagun ebezela, gure anai-arteko azkenengo guda zital negar-gariaz eraso euskuen. Euskal eskubideen ikurra zan Gernika'ko aritzarenaganako gorroto bizia nanai agertu eben gure arerioak.

Orain beste berrogei urte igaro ondoren, Gernika'ko Araudia onarturik dago.

Batu gaitez an gura oneko euskotar zintzo ta ben guztiok, gure elburu bakarra len-bait-len lortzeko: Gernika'ko Araudiaren eskubideak osotuz, urte gitxi barru, benetako Europa batu baten, aspaldi izan giñanak izan gaitez an.

ARREGI'tar Josu'k

EUSKERAREN GERIZPE

(San Anton)

ANTXIÑA

Badago Bilbon, mendez mende, euskeraren gerizpe izan dan eliza bat.

Asko edo gitxi elizako arazo ta lanetan, eten bage urteak zear euskera erabili dauan eliza ori, San Anton da.

Amaseigarren gizaldian emen egon zan euskal izlari ta gramatikari trebea zan Rafael Mikoleta, abade ospetsua.

Berton jaio ta bateatua da Aita Juan Mateo Zabalak, Franzizkotarra euskal Mixiolari langille purrukatua Euskal erri guztia arakatu eban Mixioak emonaz, sutsu ta argi. Bere lana aundia izan arren, mixiolari lez, ain zuzen be, astia loari lapurtuaz, euskerari buruz batez bere Bizkaiko aditzari buruz lan eder bat argitaldu eban.

Aita Larramendi ospetsuak liburuen zerrenda egin eban eta Aita Zabalak Larramendi il zanetik, bere egunetaraño idatzi ziran euskal liburuen zerrenda bete eban. Aita zabalak idatzitakoa da baita, bizkaieraz, bertso ederretan idatzitako alegi-ipuina txorta polita.

IZURRATEGI ABADEA

1863-8-22an, Bilbo zarrean jaio ta San Antonen bateatua izan zan On Juan Izurrategui Berrostegietan, abade ospetsu ta euskalzale goréngo. Gorlizko erreto zala euskeraz idazten asi zan eta, gero, Elorrioko Erreto zala, argitaldu ebazan idatzi oneik: Jose Dunaren bederatzi urrena; Jerusalem osteran, semeak amari; Urteko igande guztietarako, Goizpar-Ebangelioak; Umeen lenengo Jaunartzerako itzalditxoak; Etb...

Abade au urte luzeetan ezagutu genduan Elorrio'ko erreto zala. Bere idatziak argi ta bigunak di-

ra, baiña bere itzaldiak, batez be zoragarriak. 37 urtetan, jai ta igande guztietan, amarretako meza nagusira eltzen zan aldra ikaragarria, erretorearen itza entzutera. Arin ariña, gogotsua, ta bizi-bizia zan bere izkerea.

Erria berari entzuten, iñoiz bere etzan aspertuten.

Danak egozan ogoa zabalik olako itzaldi samurra entzuten. Nik neuk iñoiz ta iñori ez dausat entzun itzaldi bigun ta pozgarriagorik.

Bera bai benetan euskal izlarien eredu eder eta jarraigarria. ¡¡¡Azkenean espetsuean il zan, abade on eta euskalzale zalako. Gerra madarikatuaren ondorenak!!!

ORAIN eta GERO

San Anton elizan gure azkenengo guda arte lenengo goiz goizeko mezan euskeraz ebangelioa iragarten zan. Guda - ostein, eliza orretan antxiñako euskalzaleen espiñuak eraginda edo, zigortuak izan arren, zerbait euskera erabili genduan.

Emen esan zan lenengo euskerazko mezea, Bilbon. Bertan lenengo euskal katekesia. Ementxe lenengo euskal elizkizunak. Bertan izan eban sortzea ta gordelekuá KILI KILI euskal alfabetetzailleak. Emendik urten dabe 50 bat idatzi-idatziñok euskeraz «Euskal argitalpenak» izena eban ekintzaren bidez. Etb. etb.

San Antonek eskerrak beti euskerari, bere bitartez eliza onetan gogo artzaintza egin al izan daualako, bai ta euskereak San Antoneri zor dautso bere gerizpe ta gordeleku izatea. San Antonen oraingo abadeak be, euskal zaletasunean dabiz eta orrela jarraitzeko erabagi biziagaz. Arren, arren.

GALLASTEGI'tar Kauldi

KEZKATI

*Biotz barrengo sokotik,
bera itxartu nai neuke,
bere indar beroagaz,
eztarri daukat lotuta.*

*Ito bearrez emen naz,
zer egin jakinge;
noruntz joko ez dakit,
au bai nire neke!*

*ikusirikan erria,
itsu galbidetan;
bera itxartu nai beuke,
baina ez dakit zelan.*

*Jauna, goi arnas argia,
bidaldu nire gogora;
beragaz nik iakin daidan,
ibilbeti nundik nora.*

*Ez neuke gura ilterik,
emendik igaz betiko;
urratu bage nik dodan,
eztarriko korapillo.*

*Ikusiko al dot bizitzan,
erria zuzen bidetik;
bakea zabal guztitan,
euskal erria sutirik.*

GALLASTEGIK

GIZA-ARLOAK

*Ezetik baietzera.
Askatasunean nengon
goi argian soillik.
Bizia itzala da
jaioberri girotan
misterioz goitik.*

*Aita ta ama, pozik,
bizia lortu dabe
ez jakin garbian;
lurra ikaratu zen
aurtxoa ikusirik
negarreen artian.*

*Ain txikia zan, ain ez...
Ez zan bizigarria
azur ta mamiñez;
gaisoa, nora ator,
otsoz josita jagok
lur dana bekaitzez.*

*Txikia baiña zorrotz
amaren ugatzeri
esne zuritan ortz;
amagandik artu dau
sort iturri, maitia,
biziaren lorrotz.*

*Udabarri goiza da.
Umearen parrea
txit zoragarria;
Amaren biotzetik
aitarengana doa
maitasun loria.*

*Nik ez nekien zen
umearen su-garra
gurasoengana;
ortzak argia baiño
umeak geio, maite
guraso laztana.*

*Sei maietz joan ziran.
Sei urteko larrosak
zelaia lurrunduz;
eguzkia ta lurra
batera maite nitun,
mutilla koskonduz.*

*Jolastu adi mutil,
sei urteko gatzetan
txirulirulitan;
poza sentitzen soñak
odol zaiñetan zear
ura irakitan.*

*Gabaz, amets egin dut
eskola lagunekin
jakiturietan;
gizondu egin bear,
pizti maillatik alde
argitasunetan.*

*Nora oa mutilla,
jakitura artzera
erbestetarpean;
maisuk ez ekian
nere izkuntz garbia;
ai zoritxarpean...!*

*Maite ez naun gizona
daukat nere aurrean,
umea zapaltzen;
España'k il nai nindun,
baiña euskaldun nintzan;
mintzairak argitzen.*

*Maite neban erria
guraso biotzetan
euskeraz mintzatzen;
baiña zer sentitzen nun...
gurasoen mintzairan
etsaiak gu mintzen...!*

PAULIN

BAZTAN'GO DONAMARI

Urteak dira Baztango Elizondo'n nire emazteagaz batera, udea emon nebala. Iparraldera be, Dantzarinea igaro-bide genduala, gure osteratxua egin genduan. Zelako gomutakiak geratu jakuzan gure oroimenean betiko!

Bidasoa ibaiaren jaio-lekutik ur-samar, bost auzuneko erritxu bategaz topo egin genduan Baztan'en. Auzoen izenak Azkarraga, Arze, Igurin, Gaztelu ta Donamaria.

Goi-aldetxu baten daurkiguz eurak eta andik urriñera ikuspegia luzaturik, lautada eder bat dakusgu.

Aldamenetan Santesteban (Donestebe) ta Legasa erri ezagunak eta bien artean lantegi aundi bat kokaturik dagoala. Len baten, ezelako industri barik bene-benetan toki argi ta ederrenetarikoa ei zan bera.

Aldi batzuk besteak dakarrez eta gaur anor-emen lantegi-tokiak nagusi.

* * *

Bertako baserri ta etxeak 50 inguru dira eta notintza be urria, 500 biztanle doi-doi.

Errekatxu bik ureztu oi dabe alderdi osoa. Bata amorrainez txitean-pitean osotua ta Anizpe izenez ezagutua; bestea ez ain ospetsua, Peloldal bere izena.

Ingurumarietan mendixka ta basotxu zoragarriak daberre, aritez, gartzain-ondo ta pago lerdenez beteak.

Ira, garoleku berezia be ei da eta perretxiko-billa dabilzanentzat atsedean eta atsegin-toki galdua.

Orain gogoratzen naz txikitatik Otxandio'n Iturrizar eta Ubide aldetik eta Aramio'rako bide dan Olaeta-alde tik zelako neurri-gaiñezko gibelduridin, urretxak eta bestelango ziza, ointo ta abarrak toki ezkutuetan aurkitzen genduzan.

Argibidez jarraituz, len baten ainbeste perretxiko barrik, nik uste, Gorbea mendirantz bidean ba-geunkan olakoren bat; baiña gaur, zugaitz gabe Paradisu izena be galzoriar dau, izana aspaldian galdu ebanez.

An gau baten, Iñaki d3unaren aurre-egunean, 30 urte dirala, nire lagunakaz batera lo egin neban.

Azalpen-ariari jarraituz, Donamari'ko mendi-kate txiki oneitan, 1951'garrenean eta Eteneko gaiña deritxon tokian, jentil-arri edo dolmen bat aurkitu eben.

* * *

Naparroa-aldean akelarre entzutetsuenak Zugarramurdi'koak izan ziran. Baiña Donamarita ta Gaztelu'koak be euren ospea izan eben.

Adibide bat ipinteko... Urdax'ko lekaide-etxe ko abat nagusiak ume batzui autortu-azo eusten akelarreak izaten zirala auzune onetan eta iru notiñen gain beintzat jausi ziran salaketa oneik. Biren izenak Motsa'ko Magdalen, ta Gaztelu'ko Enekorena; oneik biok atsoak, eta aurtxu bat Mitxeltorena'ko Mikeltxu.

* * *

Azkona'tar lau anaiak Jauregian bizi ziran. Gaur baserri-etxe aundi bat da, baratz eder bat aurrekaldean dauala. Mamia ta gaztanberak zelan egiten dabezan azal-tzea da orain nire asmoa.

Era jatorra ta asabengandik ikasia darabille.

Lenengo «Kaiku» zurezko ontziaz baliatzen dira; arriak, burdin gori-goriak eta beko sua laguntzaille dirala. Gaiak ardi-esnea ta gatzagaia.

Sua artaburu txorokillez eta egurrez, aritz egur legorrez, biztuten dabe; arriz eta burdiñez gaidurik kaikua gori-gori biurtu. Kaiku barrura esne gazdun pizka bat botaten dabe.

Gatzak eragozten daun kaikua, arrien berotasunaz erre daitela.

Ondoren, arri-pilloaren gaiñean, esne geiago botaten dabe ta azkenez dana irakin arazteko burdin goriak bertara sartu.

Gerotxu baten esnea astiro-astiro epeltzen da eta arri ta burdiñok kendu egiten dira.

* * *

Amaitze gatzagaia eskuz zatitzen dabe, atzamar-arte an esne pizka bategaz igurtziz eta tantanak ontzi-gaiñera jausten dira eta barne gutzia betetu.

Ordu gitxi barru, jan leiteke mamia. Batzuk bera utsik arriak damotsoen erre-usauñez gaiñezka dagoala, mizkari-zaleak, oster, ezti pizka bategaz.

A.'tar Jo.

LAZTANA NEUREA

ARRUZA'tar Mikel (1)

*Zelai zabal aretan
Kabirik txukunena
Neukan aukeratua,
Laztana neurea.
Loraz inguraturik
Baratz eder batean
Agiri zan kabia
Zerua bailitzan.*

*Beragandik ez urrin,
Goialde bedartsuan,
Zugatz tantai arroak
Ikusten zirean.
Urretxindor alaien
Abesti gozoenak
Entzuten ziran berton
Goizetik gaubera.*

*Galeperrak ostera,
Euren pospolinketaz
Alaitzen eben sarri
Solotik etxea.
Ur gozodun iturri,
Errekatxo bizkorra,
Murmurioz abeska,
Entzuten genduzan.*

*Atsegin-baratz urak,
Benetan zirudian
Biotz ameslarien
Egongu jatorra.
Gogo-kezkarik gabe,
Bakez eta atsegiñez
Bizi giñian biok,
Aingeru bezela.*

*Antxe dastatu neban
Biotzaren eztiá,
Antxe ezautu neban
Zure maitasuna.
Yoranez eta gogoz,
Egunez eta gabaz,
Maiteki esaten neutzun:
Laztana, naurea.*

(1) Arruza Egia'tar Mikel, Bilbo'n jaio zan 1890'gko. Epaillaren 3'an, eta Bilbo'n be il zan 1966'ko, Orrillaren 12'an. Bere gurasoak, aita Mugi'koa ta ama Gatika'koa izan ziran. Bere emaztea, benetako euskaldun emakume zintzoa, Klotilde Sopolana Iragorri izan zan, eta



sei seme-alaba, iru mutil - Xabier, Mikel eta Iñaki - ta iru neska - Begoña, Itziar eta Garbiñe - izan ebezan.

Aberria, euskerea ta sendia maite-maite izan ebezan, eta benetako kristiñau, gizaseme arteza ta langille porrokatua izan zan.

Euskerazko irakasle ta idazle jatorra, beti euskeraz idazten eban eta euskal-lan asko itxi dausku. Olerkari lez ez da ain ezaguna, baiña emen ikusten danez ondu ebazan olerki polit batzuk.

(Bilbao'tar Jon Erramon'ek bialdua).

"EUSKERAZALEAK" IPUIN-SARIKETEÁ

EUSKERAZALEAK Taldeak, igaz lez, ipuin-sariketea eratzen dau.

Sariketa onetara sartzeko, oneik izango dira baldintzak:

- Euskera biziz idatziak izan bearko dabe. Erriak darabilen euskalkieteriko bat erabilliaz idatziak.
- Ipuinen itzulpenak ez dira onartzen.
- Luzera, orri-aldi bi, bitarte bi lerroartean dituela.
- Epea: Jorraillaren azkenerako gure lan-etxean (Colón de Larreategui 14, 2.ª eskoia) izan bearko dabe.
- Sariak: Iru sari izango dira: 1.ª 25.000 pezeta; 2.ª 20.000 pezeta eta 3.ª 15.000 pezeta.
- Ipuin sarituen jabe "EUSKERAZALEAK" izango eta ZER gure aldizkarian argitaratuko dira. Sari barik geratzen diranak, idazleen esku geratuko dira eta eurak billa etorri bearko dabe.
- Oitura dan lez, ipuiña izen-ordeaz bialdu eta izen-orde ori gaiñean daroan azal baten barruan sartu izen-ordea ta izena batera daroazan txartela.
- Maikoen erabagia, bagilleko (ekainilleko) ZER'en agertuko da.

1981, epailla.

ERENTZAILLEAREN ARINKETEA

Erri garbi aldapatsu bat zan Bizkai-aldean, Euzkadi'n beste ainbat lez, guztiz orlegia, beren goizelaitxu unetan tellak gorriz eztaldutako basetxe zuri ederrak aldapatxuetara eskegita lez zituala.

Izen bat emotearen erritxu orreri Eguzpegi esango dautsagu, oso eguzkitsuezalako; nai-ta sarritan Ipar-aize ozkirri osasungarriak ederto astindu eta, beste aldameneko erriren batetik sartutako lainño ta keratz astarrenak ikutu.

Erritxu au, larretsua ta, basetxe ederrez ornidua zan. Lugintzatic ondo eta atsegiñez bizi zan. Ez éguan bolu bat edo bi, arandangitxu bat «Erriko Taberna» esaten eutsoena, eta, bizar kentzalle, ozki-konpotzale ta beste ainbat arazotarako gai gizon berbatsu baten lantegia baiño beste lantegirik.

Kaletarrak? Izen orregaz ezagutzen zanik ezegoan an. Erri'ko abadea, zintzoa bera, egunaroko, meza, emon ondoren basetxerik-basetxe gaixo samar batonbat ba'zan edo baserritar zartxuai lagunduaz eurekaz izketalditxuak egiten ebazana; erriko osagillea, inguruko erritxu ta erizka guztiak zear ebille-na eta, bai-ta erri'ko idazkaria beste bi edo iru erritxu beren arduraz eukazena izan ezik ez-egoan bertan etxaide gizonik edo kaletarrik.

Orretarikoa zan Eguzpegi erritxu polita.

* * *

Egun baten erri ortara, ez-dakigu nondik, txarri erentzalle bat —euzkera mordoilloan kapadorea esaten dautsoena— etorri zan itaunka ea txarriren bat erentzeko, kapetako, ete-egoan basetxeren baten.

Lenen aurkitu eban emakumea erriko apaiz, osagille ta idazkariari esnia ekarten eutsen baserritar pertxeta izan zan eta, emakume orrek erantzun eutson: —Ez dakit nik basetxe guztietako barririk eta, itandu dagitsozu danetik zerbait dakien bizar kentzalle orreri.

Entzunaz batera zuzendu zan erentzaillea, erdi bizarkentzalle, erdi «zapateru», erdi agin-ataratzaille ta erdi barritsu zan gizon erdi maltzurragana ta, esan eutson. —Zu, bizarkentzaille jauna, ba-dakizu non dagozan txarriren batzuk erentzeko, kapetako?

Bai, antxe urrintxuan goi-aldean dagon (atzamarrrez basetxea erakutsiaz) Bizkar-gaba ezenaz ezagutzen dan basetxean dagoz makera bat eta bargazta bi kapau-bearrean.

Or doa entzunaz batera erentzaillea, tapa-tapa aomen (fama) lar ona ez daben alaba bigaz ama-alargun bat bizi zan basetxera ta, bertara alduaz batera atea jo-ta eup! egin eban. Laster idegi zan atea eta, atera urten zan emakume erpin batek esan eutson:

—Zer nai dozu?

—Ara ba, ni txarri-erentzaillea naz eta, emen dagozala erentzatu bearrean makera bat eta bargazta bi esan dauste eta, orretan etorri naz.

Orduantxe asi zan izkirimiria!

Barruan entzuten egozan alaba biak urten ziran batak kortako sardea eta besteak urkulua eskuetan ebezala, amak ate okulluan aurkitzen zan akullua eskuan arturik eta, garraztasunez, begietatik su-pindarrak urtetan jakozala:

—Orduan emengo «Makera ta bargaztak» kapaten, ee? Orain ikusiko dok nork nor erentzatuten (kapetan) dauana. Esanaz batera emon eutsan zartada bat eskuan eban akulluaz eta, alabak be beste ainbeste sarda-urkuluekaz egiteko gertu aurkitzen zirala ikusirik emon eutson arileketari erentzailleak, iru emakumeak atzetik zirala, a baiña, ain abiada audia eroan eban gizon orrek eta betirako aldendu zan erri ortatik. Ikara aundia zan gizon orrek basetxe ortan artu ebana. Bertan artutako ariñeketa geratu barik dabillega esan leike. Geiago ez da ikusi gizon ori.

URTEROKO BATZARRA

Urte guztietan lez, aurten be EUSKERAZALEAK TALDEAK bere urteroko batzarra egin dau.

Beste urteetan Karmen'go eleiz-aretoan edo Lasalle'tarrak izan eben ikastetxekoan edo Eskolapoenean egin izan da batzar au, baiña aurten, toki egokiagoa dala uste izanez, geure etxean egin dogu.

* * *

Beti lez, ez da jentetza aundirik batu, baiña batzarra gogoangarria izan da.

Iru zati batez be agertu ziran egitarauan, aurreko batzarraren agiria irakurri ondoren: Batzordeko barriak, diruketa ta gomutaki-itzaldia.

* * *

Batzordeko barriak, lendakari-ordea, Peña'tar Xabier zanaren ordeaz eta maiko bi barritu ziran.

Deia egin zanean eguna izendatuta autagaiak eskatu arren, ez zan agertu zerrendarik eta bertan egin ziran aurkerapenak gogo onez.

* * *

Diruketearen barriak Bilbao'tar Jon Erramun'ek azaldu zituan zeatz eta meatz eta eragozpen barik onartu ebezan batzarkideak.

Arlo onetan etxearen arazoa agertu zan. Gure lan-atxea ugazabak salgai jarri dau eta salneurri egokian erostea ondo litzakela uste eben batzarkideak, eretxi onetan Oleaga tar Jesus aurrerengo zala.

* * *

Gomutaki-Itzaldian Zubiri'tar Iñaki Lendakariak urteko lanaren zeaztasunak agertu zituan, argi ta garbi: Xabier Peña'ren eriotzearen barria, Euskerea irakasteko egindako lanak, argitalpenen artean, egutegia, liburuak, ZER, ipuin-sariketea, KILI-KILI, eta azkenez, artu dan laguntza baten barria.

ZER onetan agertzen da itzandi labur au oso-osoan.

* * *

Itaun-erantzunen artean, Gisasola'tar Imanol adiskidea agertu jakun gure taldean eta, batez be, ZER aldizkarian lan egiteko asmoaz. Pozgarria izaten da lankide baten eskintza eta pozik entzun genduan Gisasola rena be. Ba-daukagu itxaropena adiskide jator onegaz berba egin eta gure lan-taldea osotzeko.

GOMUTAKIA

XABIER PEÑA

Agur lagun maiteok:

Aurtengo gure txostena, samíñez beterik agertzen da, gure lendakari-orde, Xabier Peña'ren eriotza dala-ta. Ezagutu dogunok, lagun kutun bat galdu dogu; ontasun, jakintza, apaltasun eta borondate onaz osoturiko lagun zintzoa. Nik neuk beintzat esan bear dautsuet ez dodala inoiz asarraturik ikusi, bai ostera, beti irri-barreka. Bere izaeraren ezaugarria, izan be, barruko ontasanaren ispi-llua zan.

* * *

EUZKAREA GALTZAILLE

Baiña benetan galdu dauana, gure euskerea da. Bai'e'dira 25.000 euskal ikasle aren irakaspenak artu dabezanak, gure ama ezetsiaren izkuntza ikasten saiatu diranak.

Gizon batek berak bakarrik au burutu aal izateak, bere anditasunaren neurria emoten dau.

Ba-dira gizaki asko lan egiteko gerturik dagozanak, gauzak eta giroak itxura ona darakusenean, baiña gure Xabier'ek egindako lana gure erria lur jota egoanean izan da, euskal-zaletasuna erakustea legeauspena zanean.

Berak euskeraganako maitasun utsaz, indarrak atara ebazan, eta aberriari eskeiñi leikion gauzarik ederrena berak emon eutson: egunerik egun, urterik urte, bere bizitza osoa euskereari eskeiñi, auxe izan da-ta bere bizitzaren maitasuna.

* * *

EREDU

Eredu ona itzi dausku guztioi, bai gizon lez, bai kristiñau lez eta bai elburu bateri eskintzen dautson bizitza osoaren jorana lez.

Agur Xabier, zure errikideek ez dautzue zuk merezi aiña negarrik egingo, baiña ezagutu zaitugunok, gogobiotzean gordeko zaitugu. Goian BegoPeña'tar Xabier.

* * *

IKASTAROA

IKASLEAK

Aurten, 460 ikaslek izena emon dabe euskera-ikastarorako, igaz baiño 100 ikasle gitxiago, eta 1979 urteko beste.

Dirudianeaz, euskera-ikastaldiak ugaritu egin dira, leku askotan orain irakasten dalako-edo, eta au dala-ta,

ez dogu kezkatu bear, gero ta euskera geiago ikasten dalako. Gure ustez, kopuru orretan jarraituko dogu aurretzean.

* * *

UDAKO IKASTAROA

1979'ko urtean lez, igaz be oiko ikastaroa amaituta, Garagarrilla'n uda-ikastaroa izan dogu, Ibarra'tar Bernardo'ren ardurapean. Aurten 80 ikasle etorri jakuz, au da, igaz (65) baiño geiago.

Ba-dirudi ikastaro onek arrera ona izan dauala. Iru maillatakoa izan da, ta saria 1.500 pezetakoa.

* * *

ALKAR-IZKETA MAILLA

Malax-etxebarria'k zuzenduta, alkarrizketako maila, 15 bat lagunegaz izan dogu. Dirudianez ikastaro onek ikasleen artean arrakasta polita lortu dau.

Aurten ez dogu izan igaz asi genduan oarkari (monitor)en ikastaroa. Sail onek ez dau jende naikorik erakarrri, eta gure ustez ez dau merezi izan jarraitzea.

* * *

ARGITALPENAK

EGUTEGIA

Aurten geuk eginda ta Bizkai'ko Kutxak argitaratua, agertu da 1981'ko egutegia.

40.000 argitaratu dira, eta Kutxa'k Bizkaia'n zear daukazan ordeztetxeetan banandu izan dira.

Geuretzat 3.000 gorde doguz.

Aurten be asmotan gagoz, Olazar'tar Martin'en ardurapean datorren urtekoa gertutzeko eta arazo onetan diardugu.

* * *

LIBURUAK

«Alkarrizketa» idaztixutik geuk 500 ale banandu doguz.

Eskaera asko izan doguz.

Idaztixu au Gipuzkoa'ko Bankuak atara dau.

«Iniciacion», 2.500 ale argitaratu doguz.

«Euskalerriko ipuiñak», 2.500 ale argitaratu doguz.

«Ikasbide Laburua», 1.200 (Peña'tar Xabier'enak) etorri jakuz gure ardurapean saltzeko.

* * *

GURE ALDIZKARIA

ZER ALDIZKARIAK BETIKO ITXURAN DARRAI.

Illero-illero agertzen da, eta gai ta idazleakaitik, be-reala igartzen da artutako bidetik oztopo barik joango dala, baiña zuen lekuko gure aldizkariaren ontasuna epaitzeko.

Beste urtetan lez, Bizkai'ko ta Bilbao'ko Aurrezki Kutxak bene-benetan lagundu dauskuela esan bear dogu.

* * *

IPUIN - SARIKETEAK

Igaz, ipuin-sariketa bat antolatu genduan, 25.000, 15.000 eta 10.000'ko sariakaz, au da, iru sari. Ogeitak ipuin aurkeztu ziran, eta irabazle oneik azaldu ziran:

1'goa —Etxebarria Ayesta'tar Juan Manuel'ek, «Bizkaitz» ipuiñaz.

2'garrena —Estonba'tar Manuel, «Mamurrak» ipuiñaz.

3'garrena —Bilbao'tar Nikola, «Guda Baltzaren Ondorenak» ipuiñaz.

Ipuin oneik ZER'en argitaldu ziran.

* * *

KILI - KILI

Ikastaroa. Lengo urtean, Consejo General Vasco'k ezikuntza-arloan ezer ez eukala-ta, Kili-Kili'k txosten bat egin eutson, ume-aldizkari au zer dan azalduz, eta talde onek 16 urtez metaturiko bizi-ikaspen edo esperientzia eskiñiz.

Zoritxarrez baiña, ez da erantzupenik etorri. KILI-KILI ume aldizkariak aurrera egin dau betiko antzera.

KILI-IRRATIA: Aurten be, ERRI IRRATIAREN BIDEZ, larunbat guztietan ordu bateko jardunaldia izan dabe Bizkai'ko ume euskaldunak. Askok entzuten dabe asteroko irrati-une au.

KILI-KILI EGUNA: Orrilla'ren 25'ganean Iruña'n ospatu zan igazko Kili-Kili Eguna.

Jendetza andia batu zan, eta bertako euskeraren aldeko taldeen laguntasun andirik izan ez arren, Donostia'koa baizen ondo azaldu zan jaia au.

Bizkai'tik berrogei ta amar autobus joan ziran.

* * *

LAGUNTZAK

Bizkai'ko Aldundiko Aziketa-Jakintza ta Birreuskeratze Saillak, il onetako 2'ganean 700.000 pezetako laguntza guri emotea erabagi dabela jakinerazo dausku. Uste dogu luzaro barik laguntza ori eskuan izango dogula. Besterik ez, bazkide maiteok.

ZUBIRI'tar Iñaki'k

ZOKKETEA

Joan zan gabonetako zozketa eta apurrik be ez zan aldu Bilbo'ra.

Amar egun geroago egiten dan zozketari Ume-Zozketa edo «Lotería del Niño» esaten joko eta onen lodia eldu zan gure artera.

Nerbion Ibaiaren ezkerreko aldean dagozan errietatik (Basauri, Barakaldo, Sestao, Portugalete ta Santurze) ibilli zan Isauro de Dios Ume-Zozketa lodiaren zenbakiak bananduten.

Nor eta zelangoa dan 40.000 milloi erri orrei ekarri dautsezan gizon au, esango dautzuet.

Ezagutzen neban. Azkarreta zozketa-idazgelearen aurretik igarotean ikusi eta beragaz sarritan berba egiten neban. Guztiz bizkorra ta begiko neritxon. Irrati ta izparringiak bere izena zabaldu ebenean, bere ondora urreratu nintzan eta beragaz alkar-izketan jardutea erabagi neban.

Ume-zozketea egin eta urrengo egunean, biaramonean, an Azkarreta-aurrean asi nintxakon:

—Arrastion eta zorion, aspaldiko lagun! Zer dala-ta, esan egistazu mezedez, atzo ta aurreko egunetan jaso doguzan jakingarriok?

—Ara, ba. Albistariak esan eban lez, nik Nerbion'en ezker-aldeko errietan banandu nituan zozketak 40.000 milloi lauerleko emon ebezan.

—Eta zeuretzat ez zenduan itzi olako zozketarik? Zeuk ez zenduan artu?

—Bai, baiña gitxi emon eustan. Milloitxu bat baiño ez.


—Geiago izango zan. Guzurtxu bat esan daustazu.

Gizon zoriontsuak barre egin eustan eta beragaz izketa-alditxu bat edo, erderaz esaten dan lez interview egiteko asmoa agertu neutsonen, berak alboko ardanegian artzeko edari

bat eskiñi eustan eta ara joan gintzazan, Esan neutson:

—Nasai jesarri. Zu, Isauro, ba-dakidaz, zeuk esanda, zure bizitzako gauza batzuk, baiña gaur geiago esan bear daustazuz, ZER'eko irakurleentzat.

—Ori baiño ez ba'da, emen naukazu zure itaunerri zain.



Eta asi jatan bere bizitzako jazoe-rak esaten. Orense'ko Junquera de Espadameño'n jaioa da eta amalau urte zituala etorri zan Bilbo'ra. Bizibide lez, arotzian egiten eban lan. Etxegintza-lana ondo ikasi eban eta emen ibilli zan lanean ogei ta sei urtera arte.

Gero ezkondu egin zan eta Suiza'ra joan. Amar urte egin zituan an. Ango lagun-artearekin pozik bizi ei zan. «Guztiz onak eta artu-emonetan zintzoak dirala» diño.

Umeen eziketa ta andrearen gurari ta leia zirala-ta, Bilbo'ra biurtu zan.

Deustu'ko labeola lantegietan ziar-duala, itxas-ontzitik zori txar bat etorri jakon: Iru tona pixuko aingurua jausi jakon anketara eta oiñak zatitu eutsozan.

Osa-ebaketan berna bat kendu bear izan eutsoen eta guzurrezkoa ipiñi. Olan egoala, bizibiderako lanen bat eskaturik, zozketa-saltzaille sartu eben.

—Eta zelan zabiltz zeregin orretan?

—Ondo ta pozik. Eta aurten, guztiok dakizuenez, zorion-aldi andia izan dogu.

—Emen euskotarren artean zeure artu-emonetan ondo joatzu?

—Euskotarrak eta batez be euskaldunak, lagun zintzo, zentzundun eta ziñezko benetakoak dira. Ba-leiteke banaka batzuk orrelakoak ez izatea, baiña geienak ba-dirala uste dot.

—Eta emen, euren artean ainbeste denpora eginda, ez dozu ikasi euskerarik ezer?

—Berba batzuk baiño ez, euskerea guztiz gatxa da-ta. Eskerrik asko, egunon, arrastion, eta sarritan erabilten diran beste batzuk. Ni orain emen pozik bizi naz. Urteak aurrera joan jataz eta ez daukat Bilbo'tik iñora urteteko gogorik.

Au dogu Isauro gizon beargiña eta beti arpegi alaia agertzen dauskuna. Bere alaba nagusia, welten pixuko tzapeldun un izan zan boxealari battegaz ezkondata dauko. Moreno da onen izena eta Gallarta'ko mutil kuttona esaten eutsoen. 168 burruka egin zituan eta Bizkai'ko txapeldun izan zan. Noizik bein Europa'koa be bai.

LETONA'k

LEOIA eta GIZONA

Zirkuan egon naz,
abereen zirkutik nator,
eta nor
ez da gorrituko lotsaz
nik ikusi dodanaz?

Zer ikusi dodan or?

Leoi bat,
Afrikako baso-mendietako
leoi arro, indartsua.
An, Afrikan,
bere lurrian,
abere guztien Jauna,
eta Errege zana,
bere ule buru uletsua zutik
guztien jabe eginik
orroaka asten zanean
inguruko atxak ere
jartzen zituena, dardaran,
ikaran...

Gaur, or, zirkuan ikusi dot ikusi,
lotsagarri,
leoi arro, indartsu a,
neskatil, zirtzil baten
zigor-latigopean, bai ikusi dot
bildurturik, ikaraturik,
burua lurreraño makurturik,
arantz-onantz,
gora ta beera,
neskatil txikin baten esanera...

Eta ikusleak begira,
txaloka, barreka, adarra joka,
basoko Erregeari,
Afrikako leoi arro-putzari...

Eta leoi —negargarri—,
begiak apal,
atzaparrak makal,
indarrak argal,
buruko ule arro luzeak
lurrerantza umil
ezilariaren ankapean, leial...

... ..

Bai, mutil...
Gure buruak ala ikusi baiño
obe dogu il!!!

Ori ikusi ondoren,
zirkutik urten,
eta zer dot ikusten?

Ludi osoaren errege ta jauna,
abere ta piztien
jabe ta nagusi
izan bear leukena
— G I Z O N A —
neuk dot ikusi
burua galduta,
adimena illunduta,
mozkortuta
arantza onantza
kili-koloka...
eta umeak inguruan barreka...

... ..

Noren antza?

Au ikusi eta
pentsatzen nago:
leioia ala gizona
jausi da beerago?

GOIKOETXEA'tar Iñaki


PAGASARRI MENDIA

Urteak dira, zortziren bat nunbait, onetzaz AGUR asterokoan idatzi neba-la.

Pagasarri mendiari buruzko asmoak ziran, baiña oraindiño bete-baga diranak.

Ori dala-ta, besteren batek aldi gitxi dala onetzaz DEIA egunkarian idatzi dauanez ta nire orduko asmoakaz ia batera datorrenez, gazteleraz diarduala, ori bai, ni be gure euskera maitean ia ezer aldatzeke esateko gerturik nago.

Diez Aldai jaunak diñoanez, Jon Castañares gure alkate Bilbo'tarraren asmoak ez dira barriak.



Diru-ezarketak ordutik ona asko be asko aldatu dira. Orduan 283 milloi pezetarena izango zana, gaur 1.000 milloira goratu da ziurkiro.

Oiñez bertaratzeko askorentzat gogortxua da, baiña Bilbo'ko biriak diranez, Udaletxea eta Bilbo'tar Alkate ta Alkate asko alik eta biztanle geienen onurarako bera barriztatzeko aterabide pozkorrek billatzen asi diranetik, zaar eta erdi-gai-soen jai-egunetarako itxaropen oroigarria danik ezin uka.

Goazen azalpen labur bat beratzaz egitera.

1973'garren urtean Bilbo'tar batzuk edo alkarte bik, dakidanez, Pagasarri mendia ta bere inguruak barriztatzeko Udaletxeak egindako dei alaikorrari erantzuna bialdu eutsoen.

Euren izenak «Tele Ski Bug» batena ta bigarrenarena laburkiro, «Idom».

Biontzat sariak egozan. Lenena 520 milla pezetakoa ta bigarrena eun milla pezetakoa.

IDOM alkartearen oldozpen batzuk oso onuragarri ta pozgarriak ziranez emen agertzen doguz: Lenengo, «teleférico», bat Pagasarri tontorreaino. Egitekotan olakoa izango litzake: Txori-gisa, aulki itxurazko gela aundi-samar batzutan jesarririk eta mendi-zulo guztiak bidean begizaturik, aldi gitxi barru Bilbo'ko San Adrian auzunetik urten eta gura dabenak Artxanda baiño zertxubait garaiago dagon bitarteko Arnotegi mendian, 427 neurki ditu, geraturik. Obeto esateko, bere egaleko zelaian. Emen barren-barrenetik arnas dagikee eta gura dabenak egun osoa igaro.

Au bide-erdia danez, jarraikeran «teleférico» onek bere amaia Pagasarri'n bertan izango dau.

Tramankulu onek eroango dauan zamea, 1.000 kg'ra artekoa izango da. Joan-etorria, gelditze ta guzti, ordu batekoa.

Asieran geltoki galant bat. 1.300 berebillentzako añaikoa bera.

Arnotegi'n, bide-erdian, mendi-egala-ren zelaian, guztitariko kirolak: Ostikopelota, esku-pelota, tenis, ugertoki, egazkin txiki, edo elikokperoak, berebil-geltokia, akeit-etxea, eta jatetxe on bat.

Ez da txantxetako zera gure Bilbo zaratatsuan!

Pagasarri'n bertan, Ganeta izeneko lekuan amaitzeko asmoaz. Emen egin-bea-

rreko lana txikia da. Koskorra deritxon zelaitxua dogu alde batetik eta Pastorekortarena, pizka bat beeratuaz, bestetik.

Bien artean amiltegi, leiza ikusgarriak. Toki txikian ikuspegi zoragarriak bene-tan.

«Euskaldun-sabeldun» jateko beti prest daukagun ezkerro, ni joaten nintzanean, «Paca etxea» bakarrrik egoan goialdean, baiña gero beste jantoki txiki batzuk be egiteko asmoetan dabiltz, asmo aurreratzailleak jarraitzekotan.

Al ba'dabe, bedartzan «ski» larientzat be kirol-zelaitxua. Txirrist edo laban egiteko be beste orrelangoren bat, eta ez asko geiagorik.


Asmatzaille Bilbo'tar batek, urteak dirala, asmatu eta zertzelada oneik idatzi ebazan. Bere izen-abizenak —Emilio Moreno (G. B.), Bilbo'k asko zor dautso.

Txindi asko be asko arazo onetan adoretso eralgi ebazan. Ia laster, guztiz bearezkoa dogun lan au, asten dan eta orduan bealdeko ke ta eguratz pozoituak urrundurik ta arnas-toki barriakaz baliaturik, gure uriari urtenbide alaitsu bat damotsogun.

Onetan urri gagoz. Mendi-artearen katurik, itxasoko ta ondartzako bidea geienak udaldian soil-soillik dakienez.

Ez dagigun ustea galdu. Ekiñaren ekiñez, dana ez ba'da anitz lortu geinke.

JOSU'k



NORA GOAZ EUSKALDUNOK?

Gaur dogun izugarritzko egoera ikusiaz, ez dakigu nora doan gure euskaldun nortasun ta izakera osoa.

Gure joan etorrietan bai España'ko laterrian ta bai ta be Europa'tik zear, ez dogu besterik entzuten: Zer jazoten da Euzkadin?

Zer dabilzue euskaldunak?

Onak zirikatzen gaitu biotz biotzean.

EUSKALDUNOK, ez euskaldun talde bat; ZER dabilzue euskaldunok?

Danak lapiko baten. Etan zelan agertuarazi ori egia ez dala, euskaldunak betikoak gareala, abertzaleak bai, oso osokoak, baña zuzentasun ta bakezaleak?

Zerbait argitu naian, eredu batzuk azaltzen doguz gure erantzunetan, eta euren arte Lino Lazkano'ren erdua.

Euzkadi izan eban azkenengo guda zitalean, Loiola ta, baña bakezale; askatasunaren amorrotua, baña beti zuzen-zuzen bere kristau bidetik. Beti ernai, zuzentasun ta bakearen billa.

Euzkadik izan eban askenengo guda zitalean, Loiola aneitzaren (batallón) aneiburu, geroago, goragoko mailletan. Euskal gudarostean.

Bere Loiola'tar gudariakaz, atsedean apur bat artzen egoala, Elgetako erri inguruan 'miliziano' talde bat, 32 gizon euskaldunek' bizia kentzeko asmoz, euren aurretik.

Ezagunak geienak, ingurukoak ziran eta: eskumakoak izatea baño beste errurik ez eukela jakin ebanean, asarre bizian milizianoen erpetatik atera etxera bialdu zituan, euren burua obeto zaintzeko ta tokiren bat estalduteko biltatzeko guda amaitu arte, aginduaz.

Andik laburrera, ta toki bereatan egoala, Gandasegi, Gongotzaia (Arzobispo) Jauna eldu beragana, ta Karlisten (oneitarikoak ziran aurrez aurre egozanak) aldera joateko asmoa agertu.

Ez bidea erakutsi bakarrik, berak eroan eban beste aldera, ta arein Kapellauaren eskuetan itxi.

Ortik dator zelan, ainbat gauza ta maltzurkeri ikusi ondoren, il baño lenago Gandasegi Jaunak esandakoa. Gorriak an ta Kristauak emen? An bai ikusi nebazala nik benetako Kristauak.

Gudako gora berak aurrera, eta ara or gure Lino, Santona ta gero Larrinagan giltzapetua, iru eriotz-zigor bere sorbaldan ebazala.

Ez dogu esango pozgarriko egoera zanik, baña bai baketsua bere biotz barruan.

Ikustekoak aren idaztiak: «Ez zaiteze arritu, Jainkoak daki, ez daukatela zergaitik odol txarrik egin, nire bizitza guztiz garbia izan dan ezker, ta asko egin ez ba'dot ere, neure eskuetan egon dan almena bete bai».

Baña egunen joan etorrietan nor estutu ez? Norbere albotik, gaur bat biar beste bat Derio'ra, eta norberea noiz izango dan jakin barik. Ori dala ta, andik iru bat illebetera, alegiñak egiteko eskatu eutsen etxekoei, zigorrak kendu edo epai agindua betetzeko.

Sasoi atarako, ba-genkiazan guk, len esandako 32 gizon aien izen ta zuzenbideak, baña ez genduan autorlerik aurkitu.

Azken baten Karliten Kapellaua, Gandasegi'ren jau-

be egin zana. Salamanka'n egoala jakinik, ta gizon aundi eginda, aregana jo. «Gizon a, ilteko zorian dagoala?». «Ez orixe, nik neuk zerbait egin barik».

Eta alan egin be. Ilteko zerrendan egoan gaba bereatan, Larrinaga'tik atara, ta Oña'ra eroan eben gure Lino.

Barriro epaitu, zigorrak beeratu, urrengoan beerago, ta urte batzuk igaro ondoren espexian, etxeratu zan gure gizona naiko makalik.

Gorputzez makalik, baña ez biotzez, zutan eukan oraíndik abertzaletasunez bere arima ta. Baña lengo nekaldiak gitxi ba ziran, Bergara'n ez gitxiago.

Erri inguruan zerbait egiten ba-zan Euzkadi'ren alde, zurrumurruaren bat entzuten ba-zan, lenengo ta bein Lino'ren etxea arakatu ta bera errudun edo errubako Ondarreta'ko espexera.

Zelakoak izango ete ziran ango zigorrak; bein baten, bera ta beste borrokalari bat eroiazala loturik Ondarreta'ra, tximisburdiren azpira bota eban bere burua lagun arek.

Zenbat gogoratzen zan Lino arekin. Ta jakiña. Lino eredu gure etxean. Gu gazteok, zoraturik ain zintzo ta ospetsu zan senitarteko aregaz.

Ta ezin arteak artu, etxean egoala jakin genduan baten, Bergara'ra, Lino ezagutzera. Umetan ikusi genduan, gudari jantzita etxera etorri zanean, baña ez zan bardiña. Gizona ezagutu nai genduan, ta bai benetan ezagutu genduala.

Bere etxera elduagaz batera: «Baña nora etorri zara?»

«Ez al dakizu etxe onetara sartzen diran guztiak salatuak izaten dirala?». Ez ginduzan esan orrek bildurtu eta an egon giñan egun bitan.

Urrengo egunean eta kaletik zear giñoiazala, erritar bategaz topo egin ta bere irribarre garbienagaz, agur egin eutsen gure Lino'k.

«Al dakizu Bittor nor dan ori?».

Zelan jakingo, lenengoz ikusten neban ta, ta Bargara'n ganera, nik iñoz zapaldubako erri aretan.

Gure ezetza jakin ondoren: «Ori da niri emen Bergara'n kalretik aundienak egiten daustazana». Orreri zor daustodaz nire ezbeurrak gaur egun.

Odol barik gelditu giñen.

Zu, Lino, erantzun geuntson, ta orrelako arerioari, zuk egin dautsozun agur biguna, nondik nora?

Jesus, Bittor, esatea be, berak. Nor naz ni gizon ori epaituteko? Esan al daustazu, maltzurkeriz egiten dauan nire aurka, ala bere zintzotasun garbienagaz, Erriaren alde jokatzin dauala uste ba-dau, ni Erribidetik kentzeagaz. Goien dogu guztien Aita, eta Arek epaituko gaitu azken egunean. Gu gure bidetik, bera beretik, baña gorroto barik.

Eleiztartzat geunkan gure burua, baña erantzun au artu ondoren, «Lino, emen paparrean daroat nire Katoliku Ekintzako Gurutz orlegi au, baña kendu egin bearko dotala uste dot; nik Katoliku izatea zer dan ez dakit. «Katoliku baño lenago gizona, ta ori izan bear gara euskaldunak, bere erantzuna, ze euskalduna ta fededuna biak dira bat».

Beste barik, danori agur.

Bittor ATXUTEGI

JAZORIKO BAT

*Ba dira Gabonak, ona emen oporrak
Umiak jarrita, neure inguruan.
Sutonduan gagoz, ta danak batera:
¡Amama oin ipuña, esan kontu bat!
Geure kontu zarrak...
Iturriko ura, otza, gardena;
zeure tantakadak, landaran ganian,
lur barrutik urten, ta egunen argiaz,
disdiratsuak!
Eztago konturik, gaur edestial!
Geure artian dagoz gizon apal-onak
urre-biotzdunak, lengo denporan
sarri egin ebenak gauza arrigarriak.
Auxe da ardao zarra,
zanetatik bero, ta biotzan sua
egitekoak.*

* * *

*Euzko Gudaritza, prantzesen artian
doixtarren aurka, barroka gogorran
ibilli ziran.
Batzutan ganetik, bestetzutan galdu,
jazoten dan lez, edozein gudan.*

* * *

*Doixtar-eskuetan, jausi Ordoki Jauna,
ta eriotz epaya emon eutsena.
Ba daruaz batzuk, ilteko mendian.
Euskuak lotuta, kateaz, atzian.
Polondarra izan bere laguna.
Doixtarrak atzian ondo armaruak.*

* * *

*Bidia estututen zan
amilka ganian igaro ziran.
¡Igesi egin daigun! geuriak diñotso.
Bestiak gurago eban iltia.
Amilkatik bera burua bota eban
geure gudariak.
Doixtarrak luzaro tiro ta tiroka
tontorren ganetik, ibilli ziran.
Azkenez, juan ziran; ezebez mobitzen
ezeben ikusten. Il zalakuan, baduaz aurrera.*

* * *

*Iru egun igaro, egunak ta gabak.
Eskuak lotuta, odolez beterik
Jo-zauritua.
Bedarra janari, baita ura edari
ba eukan mendian.
Azkenez artzain bat arkitu
ta azkatu. Zauriak osatu.
Gogortu atzera.*

* * *

*Ori jazan eban gure gudariak.
Ori edestu eustan Ordoki jaunak.
Orixe izan zan frantzitar aldian
Euzko Gudaroste, Buruzagia.*

UTARSUS

ABESTU BILBORI

*Gora ta gora betiko
goratu txalo berotan
Bilbo jaioa euskeldun
Ibaizabalen ertzean.*

* * *

*Txiki lenengoz, auzoa,
aundituaz gizalditan
Begoña, Deustu, Abando
artuz bere magalpean.*

* * *

*Aberats ebazalako
meatz ugari menditan
Konsuladoz, era askotan
indartsua itxasotan.*

* * *

*Jakitunen jaioterri
ezagun mundu guztian
bere entzute ortik dabil
gizakien agoetan.*

* * *

*Arriaga gazte azkar
Miragarri eresitan;
Iturribarria or da
biotz bigun olerkitan.*

* * *

*Unamuno pilosofin
beti zorrotz gogaketan;
Arana Goiri gorena
eusker ta politikan,*

* * *

*Aneika bertan gizonak
jakintzu mota guztitan
zenbat diran gizon orreik
ezin edestu itzetan.*

* * *

*Anei ta anei lantegi
ibaiaren bi aldean
langilleak eten baga
Bilbotarrak goian goian.*

* * *

*Emengo gizonen biotz
ondraua dala benetan
zintzo ta argi egiaz
emengo artu emonetan.*

* * *

*Aurrera beti Bilbotar
eziñik ez da zuregan
Begoñako Andra Marin
magalpe eta oñetan.*

* * *

*Euskaldundu zaiz guztiro
zure sustraiak loratan
Gora ta gora betiko
Bilbo nire biotzean.*

GALLASTEGI

ZALDUNA TA LAMIÑA

BASORIK BASO

Ba-zan beiñola euskal zaldun bat arratsaldero bere zaldi bizkor eta bikaiñaren gaiñean jarrita, bere gaztelu dotoretsurik urten eta ingurumariko erreka, baso, leiza ta mendiartetik zear bere osteratxua egitera joan oi zana.

Aize zaratatsua ei zan bere lagunik onena ta bein eta geiagotan ariñaren ariñez zaldi-gizonok zerki bat bakarra bai-liran gaintzen eben bera.

* * *

LAMIÑA BILLOSIK

Alan bein baten illundu-aurretik eta illargiak ortzia betetan ebala, mendi-zulo ta troka artetik joiala zaldi ederraren jauzi ta artaziak ezin eutsiz, beingoan aberea baretu, baso trinko baten sartu ta pagoz biribilgaturik ebillen errekatxu kantari ta ezkutu bategaz topo egin eban.

Bertan ikusi eban edertasunak txunditu ezeze txito biozperaturik itzi eban: Adats gorrizka margozkoak orrazten ziarduan andereiño gaztetxu bat zan eta orrazteaz batera lelo bardiñeko abots zoliz, abesti politenetariko bat ere eresi oi eban errekatxu-baztarretik.

Bere edertasuna ta sotiltasuna parebakoak ziran.

Gure zalduna lilluratuta egoan eta bereala maitemindu zan. Ba-ekian, bai, zaldun gazteak andereiño ori ez zala ludi onetakoa; neska artan zerbait arrigarri, zoragarri ta maitegarrizkoa egoala.

Biotzak alan eta be, bere adimenari irabazi eta bere maitetasun bizia lamiña lillurakorrari ezin bestean agertu eutson.

Lamiña, geldo, lotsor geratu zan eta erdi billosik egolarik, bere bular-arteak seda-oial zurizkoakaz estaldu eban. Bere edurra lako aurpegia, zuri zurbilla, lotsaren lorasaz, gorri-gorri geratu jakon.

* * *

ILLARGIPEAN MAITEMINA

Biok gaztetasun amorioz pilpilka egozanez, lamiñak bere aldetik, beste mundu batekoa izan arren, pozarren artu eban zaldun gaztearen biozkadea eta arrezkero gaue-ro alkar ikusteko erabagia artu eban.

Illargi betea zan lekuko soil bakarra errekatxu-bakardade aretan. Lamiña pinpox-pinpiriñak bere aldetik bere

bakardadeko lagunai jazorikoa agertu eutsen eta eztegueterako zerak gertatzeko agindu.

Zaldunak biotz-kozkaz bere aitari be lamiñagaz ez-kondutea gura ebala azaldu eutson. Aitak asarre bizian jarrri ta ezetz biribilla jaurtiz, debekatu egin eutson semeari ezkontzea.

Zaldun gazteak orduan erantzun gogor bat bere aitari emon-ondoren, gaztelutik iges egin eban eta bear izan ez-kero bere maitiagaitik bizi emoteko be gertu egoan.

* * *

LAMINAREN BIOTZA ERDI BI

Urten eban amen baten etxetik eta aita bere atzetik serbitzuko gizatalde bategaz.

Gazte lilluratu biak betiko errekatxuan tril eben eta maiteminduen itzik zoragarrienakaz alkar agertu eban.

Aita lagun-taldeagaz eta aizearen laguntasun balio-tsua bereala bertaratu zan eta semeari azken-aldiz biziro agiraka egin eutson eta lamin sorgin arengandik betiko alde egiteko agindu.

Semea bere asmoetan tinko egoan eta ez eutson aitari jaramonik egin.

Azken tamalgarria agirian egoala, gauza ziuerra zan.

Aitak, barne berotasunez gaiñezka, serbitzari bateri kiñu bat egin eta gezi zorrok batek lamin gaztearen biotza erdibitu eban.

Au, geldiro-geldiro, bere maitearen besoetara jauzi zan.

* * *

BETIKO BESOETAN

Zaldun gazteak oi indartsu bat jaurti eta bere lamin maitearen gorpua besoetan ebala, «beragaz betiko noa» esan ondoren erreka-inguruko leiza batera bere burua jaurti eban; bere gain ainbat arri-zarata, ulu ta eroستا eroiazala.

Maite-minduen soiñak, illotzak, ez ziran iñoiz ere agertu.

Bizirik dirauela surrumurrua alderdi areitatik entzun oi da, eta goiko mendi-arteke errekatxoan eten gabeko marmorioan, euren abotsak nabaritu leitekezala, ain zuzen.

ARREGI'k

ARRI-ANDI

Oromiño'tik Arri-andira
Emendik Mandaria baserrira
Neure lagun zar Olano jaunari
Nator ba, gabon-jai onak opaltzera.

Nire eskatsak leio bi ditu
Andiak eta zabalak
Bertatik sarri ikusten ditut
Neure lagunen akatsak.

Goizean goiztik jagiten naz-ta
Begiratu Mandari'ra.
Ikusi nairik ango zozo arrak
Urten ba'dau etxe-aurrera.

Baiña amarrak amaikera
Urteten dau solo-aurrera
Orduan trumoia zumetan ba'dau
laster sartzen da barrura.

Arratsaldean bostak inguru
Or dator soloan bera
Txokor aundi aundi bat muzturtean da
Neure enbidi emotera.

Alakoen baten etorri zaitez
Ona neure atxe-aldera
Txokor eder bat sakelian da
Bera neuri emotera.

Orduan biok izango gara
Lagun urkoak aurrera
Ta abestukoguz zortziko zarrak
Lenauko asaben antzera.

Kontuz ibilli gabon-jaietan
Zozokumak jatean
Okerren bat izan ez dakizun
Eurakin afaltzean.

IURRETA

Iurreta da erri kutuna
Dago Durango'n menpean.
Beti bertan saindio ditute
Ekandu onak biotzean.
Izanagaitik basarri erria
Itz dagie euskera garbian
Ta emoten dabe eredu ederra
Erri askoren aurrian.

Orretarako dituzte eurak
Aurrekulari onenak.
Aurrekulari ta atzeskulari
Guztietatik garbienak.
Baita ezpata-dantzariak be
Bertan dira bizkorrenak.
Aita SanMigel Iurretako
Dantzan ondoen dakienak.

Onez gaiñera dakie errian
Abes-Batz ona ta txukuna
Gizonezko ta emakumeakin
Ondo orniduta dagoena
Bai txadonian, zein enparantzan
Ondo abesten dakiena.
Abots eder ta belarri fiñakin
Ondo alkartuta dagoena.

Bertan aurkitzen izan dabiena
Batz-Toki baten utsunea
Au bere sortu dabe ta poz-pozik dago
Erri guztiko jentia
Abenduaren 14 ingururako
gertau gura dabe beren askunde
Orduan be Iurreta'n izango bada
Irrintzi ta umoria.

LONTZI'k

10 IZKI'koak
lamentable

9 IZKI'koak
más allá

8 IZKI'koak
destruir
playa

7 IZKI'koak
rico
carácter
unir
cebada
salutación/rosario

6 IZKI'koak
venta
gimiendo
cansar
progenitor
lleno de llamas
de poco juicio
ave
ladrido
mucho, tanto como



5 IZKI'koak
compañero
anciano

4 IZKI'koak
luz
sitio, lugar

bien
volando
el año pasado
ligero
roña
tuyo (lo)
nombre
superficie
piel
tela, tejido

3 IZKI'koak
yo
como (obrar como)
exclamación de sorpresa
palabra
entero

2 IZKI'koak
vete
varón, macho
sufijo
sufijo (con, por)



EUSKERAZALEAK

BIZIA LENENGO

«Gauza atsegiña ta apaingarria da, aberriaren alde bizi emotea». Ori ñoan antxiñako erroma'tarrak latiñez esaten eta idazten eben esaldi gogoangarri batek.

Eta Euskalerrria'ren kondairara begitu ezker, ori olan izan dala ezin ukatu geinke: Gogoratu esaterako gudaldian il ziran ainbeste gazte adoretu ta euskaldun gartsu eta arrezker, edo epailarien erabagi gogorak edo agintari biotz-gogorraren oztasun bildurgarriak eriotzara bialdu dituanak edo askatasunaren billa ekin dabelako naiz aberria biztuten arduratu diralako izkillupean jausi diran abertzale ta euskaltzale sendoak.

Baiña urrago diran jazokizunak ez dabe beti olako argitasuna agertzen. Asmoak eurak be sarritan oker-antza artzen dabe. Eriotza batzun aurrean Euskalerrriak alkartuta ezetz erantzun dau. Jose Mari Ryan'ena daukagu orain gogoan.

Bere aldetik, erriaren aldetik, begituta bai esan lei zalantza barik Erroma'tarrak esaten ebena: «Aberriaren aurrerabidean etorri jako eriotzea, aintzatsua bere azkena». Baiña, beti jazoten dan lez, bere etxeoai ta ume txikiai begira, gauza samiña ta negargarria.

Iltzailleai begiratu ezker, euskaldunak izan dirala gogoraturik, mingarriagoa ta lotsagarria be bai. Orregaitik erriak eta politika-alderdiak erantzun argia ta jentetsua emon dabe uri-buru eta errietako agerpenetan, naitza orretan be betiko nastatzaille ta aurkalariak izan, Leizaola jaun goragarria ta ainbeste urtetan Euskalerrriaren askatasunaren ezaugarri izan doguna zaurituta ikusteraiño, Dana dala, onek be, urtez aurreratua izan arren, gauza aundizat artu dau erriaren alde zauritua izatea.

Gure Erriak ba-dauka, itxurea danez, biziteko ta aurrera jokatzeko, bakea ta eskubi-deak lortzeko guraria. Bizi nai daben erriak ez dira ain errez ilten.

Bizia lenengo. Erriaterren bizia. Erriaren bizia.

GAMIZ

GOIZ-ARGI

Erribideko aldizkaria

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

Erderaz

BARRIAK ETA ARAZOAK

SASKI-NASKI

ERRIBIDEKO ALDIZKARIA

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

munduko goraberek, jazokizunak, barregaiak...


ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Confie en nosotros

Zere nortea zuzan



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**